

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

309n. zenbakia

iraila 2005

2005



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

2005-2006 IKASTURTEA

OGEI TA AMAZORTZIGARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 135 E

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 -

URRUTIZKIÑA 94 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 10'AN

38º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 135 E

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 94 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 10 DE OCTUBRE

LUDIKO III GUDA? (III GUERRA MUNDIAL?)

ERASOAK ETA ERANTZUNAK

Aspaldion jazokizun bildurgarriak ikusten doguz. Izukeriaren gora-bira diran jazokizunak.

Lenengoa “torre bikoitxai eraso” izan zan.

Bigarrena Afganistan’eko guda: Taliban’en aurka, Bin Laden’en billa.

Irugarrena Irak’eko guda amaitu-eziña, Azores’eko itunaren ondoren.

Laugarrena Atotxa’ko sarraskia.

Bosgarrena London’eko sarraskia . Au gaur, 2005-07-07. Au ez da izan Edinburgo-ondoko Gleneagles’en egin dan 8 laterri aberatsen aurka eta ez olinpi-jokoetarako aukeratua London izan dalako. Ez. Azores’eko itunean kideko izan zalako baiño.

Bost jazokizun orreitan jakintza edo kultura bi dabiltz alkarren aurka: Islandarrak eta sarkaldetarrak..

Erlejiño-gudea eta da ori? Islandarrak kristiñauen aurka ete da? Bai, bear ba’da, Islan’en aldetik. Oneik guda santua agindu lez artzen dabe mundua musulman egiteko. Baiña ez ainbeste kristiñauen aldetik. Or dago Errusia, itxuraz beintzat ez ain kristiñaua. Gaiñera Kristiñauak motel dagoz Ameriketako Ebanjelio-Eleiza izan Bush aukeratzeko lagundu ebana. Guda ori egiteko?

ZELAKO GUDA?

Or ikusten doguna ez da orain arte izan diran guden antzeko ekintza: Gudaroste bi alkarren aurka zelai baten! Ez. Erasoa eta erantzunak dira, baiña noz jakin barik datozenak. Islandarrak datoz eraso eta sarkaldetarrak babes-bidez edo “a la defensiva”.

Islandarrak kalte ikaragarriak egiten dabez: Torre biak, Atotxa, London eta eriotzarik geien egiteko lekuetan (trenak eta busak). Eta ori atomozko edo nuklear deritxon kizi-indarrik ez daukela. Ori ba’leuke zer? Kontu aundia euki bearko da non egiten diran kizi-indarrezko lerkaiak jakiteko.

NORK ASI EBAN?

Erasoa izaten da gudaren asieran, esaterako Torre bikoitxetan, baiña gudarik ez dago erantzunik emoten ez ba’da. Erantzuna Afganistan’en Talibanen aurka eta Bin Laden’en billa emon zan eta jokabide ori Azores ugartee-tako itun irukoitzean siñatu zan. Onen ondorena da Ato-txa’ko eraso eta erriak PP’ri emon eutson ezetza autarkietan, Zapatero ta sozialisten pozerako. Izan be PP’ren

elburua beti da guda irabaztea, orain be bai, baiña billatu bear dana bakea egitea da. Au gero argiago.

Erasoak ta erantzunak, or dago guda bizi-bizia.

Irak’en ez da lortu bakerik eta ainbeste ildako dagoz begien aurrean. Sadan Husein kenduz nai izan zan bakea ekarte eta orretarako bidea gudea izan zan. Baiña gudadak, zori txarrez, ez dau ekarten bakerik, beste guda bat baiño. Eta urrengo guda non? Iran’en? Ala Goi-Korean? Okerreko bidea da ori.

BAKEA ZELAN EGIN?

Oraingoz ez dago bakerik egiterik, guda asi baiño ez da egin.

Baiña bakerako bide bi artu bear dira. Lenengo bidea erasoai erantzutea da, orretarako Irak’eko guda jarraitu ta amaitu, polizia munduan arduratu eta islan-buruak espetexeratu eta iñoz gudarik egin bear ba’da, ONU edo Laterri Alkartuen ardurapean izan daitela. Eta bigarren bidea alkar-izketearna da. Bide au ez dabe onartzen PP’koak eta beste batzuk. Izukerizaleak ez da egin bear alkar-izketarik, diño, baiña oker dagoz. Alkar-izketa mundua guztiagaz egin bear da: Zer nai daben jakin, zer ekatzen dautsegun esan, eta al dana alkarrari emon.

ALKAR-IZKETARAKO BIDEA:AITA SANTUA.

Zapatero’ri entzun neutsazan berba gogoangarri oneik (eta bakoitxari berea emon bear jako): “Bakea egiteko kulturen alkarizketa indartu bear da”. Or sartzan da erlejiñoen alkar-izketa be.

II Jon Paul Aundia aitasantuak asi eban bide ori, Sinai-mendian liburudun erlejiñoen arduradunak batu ebazenean (Eleizea, Islan eta Israel).

XVI Bendikto’k be zergaitik izen au artu eban azaldu ebanean argi esan eban. XV Benedikto’k Ludiko I Gudan bete eban antzeko ekintza bete nai ebala, batez be gudari buruz. Gaiñera Benito Deuna Europa’ren zaindari zala. Europa’gaz batera sartzan ebala USA usten dot.

Islan’en eta Sarkaldekoen artean alkar-izketa sortzeko ez dago iñor gaur Aita Santua baiño egokiagorik.

Egia da, islandarrak ez leuke errez onartuko Aita Santuaren bitartekotasun au, baiña ondo dakigu Batikano’ren diplomazia zarra ez zurra dala eta lortuko leuke islandarren arduradunen aurrera gozo-gozo eltzea.

Ona emen zeintzuk izan leitekezan bakerako bidean Aita Santuak emon bear leukezan urratsak:

1ª.- Islandarren arduradunak aukeratu, Bin Laden’egan-dik asita.

2^a.-Sarkaldeko edo kristiñauen arduradunak aukeratu, Azores-tik asita.

2^a.- Islandarrai itauna egin: Zer eskatzen dozue eraso-rik ez egiteko?

3^a.-Sarkaldekoai esan: Zer egingo dozue III mundua eta islam aurreratzeko?

Edinburgo-ondoko Gleneagles´en gaur 8 aundiak esan dabenez, gertu dagoz zorra parkatzeko, kutsadura alboratzeko eta Afrika´ri ta beste lurralde batzui laguntzeko.

Islan be gertu dago arorio edo petrolioaz arduratzeko, eurak dauke geiena ta mundua larri dago orregaitik, karuegia dalako. Guda Santua alboratu bearko leukee eta ondasunak obeto zaindu erriak aurrerapena izan dagien, aberastasuna gitxi batzuen eskuetara jausi barik.

Ba-dago bakerako bide-zidor bat or. Lortu bear dan ondorena litzake jakintza bien arteko mai bat iraunkortau-naz ezartea, sortzen diran arazoak aztertzeko eta erantzun egoklia emoteko.

Bakea egiteko bearrezkoa da jakintza bien alkar-izke-ta. Gaiñera alderdi bientzat gauza pozgarria izango litza-ke eta erlejiñoak berak bultzatu bear leukez, bai islamda-rrak eta bai kristiñauak, bakea egiteko, guda alboratzeko, Jainko baten seme-alabai dagokien lez.

OLAZAR´TAR MARTIN´EK
(2005-07-07)

**ELORDUY TA URRESTI TAR JON
ADIZKIDE JATORRARI**

BARATZA

Gauzaz beterik dago
Erlorduy-ren baratza,
egiz, pozgarria
urrezko eguzkia
dizdizera ederrez
dau lagun maitia.

Tomate gorri-gorri,
ondo, dotore dator
eguzki goritan,
lora zuri zuriak
sortzen dabe azia
on-etorrietan.

Zeru urdiña agurka
goizian goiztik dator
argi zabalagaz,
baratza maitalea
betik gora begira
eskerrik onenaz.

Baiña gozo gozoak
eztitan dagoz goizez
eguzki sorreran,
ederragoak dira
gatzagaz gozaturik
maian egokeran.

Piperraren lorea
zuri-bitzetan dator
orlegi artean,
usain gozozko lore
janari biurtzen da
urrezko udean.

Kalabas ta kipula
baratzaren erdian
osasuntsu dagoz,
lur maitaleak dira
arrokeria barik
edertasun giroz.

PAULIN

LATIEGI TA ERASO 'TAR BIXENTE

(+ 2005-06-27)

GAISO-ALDIA TA ILLETEA.

Lanean baiña gaisorik egoan aspaldion Bixente Latiegi gure lankide aundi eta ugaria.

Ille batzuk dirala egin eutsoen esteetako ebaiketa arriskugarri bat eta ondo urten eban, baiña bere odol-bideetan, biotzetik ez ain urrin, odol-batu edo tronbo bat geratu jakon, arriskugarria, batez be odol-bide orretatik biotzera urreratzen ba'zan. Eta urratu jakon, antza. Aurtengo bagillaren 27n. egunean etorri jakun bere eriotzearen albiste mingarria.

Naizta gorpua aurrean izan ez, Tolosa'ko eleiza nagusian izan zan illetea urrengo egunean, Gasteiz'ko Gotzain dan Migel Asurmendi monseñora buru eta inguruan berrogei-bat abade zirala.

IKASKETAK ETA GUDARITZA.

Bixente'ren bizitza luzea, 86 urte il zanean, eragintsua izan da: Gasteiz'en abade ikasten, soldaduskan teniente-maillara elduta, barriro Gasteiz'ko Seminario ederrean gure aldietan eta 1949n. urtean abade.

Araba'ko erri txiki baten asi eban abadetza baiña laster deitu eutsan Ballester gotzaiñak Gasteiz'en bertan bearrezkoa zan lan bat egiteko: Indar aundi barik lanean ziarduan Eleizbarrutiko Lan-Ikastegia suspertzea izango zan zeregin barria.

Eta egin eban Bixente'k gasteen eziketarako lan au: Ainbeste bider urreratu zan Madrid'era diru-laguntzaren billa eta len, Teniente zala, ezagutu ebazan gudalburuak izan ebazan orretan laguntzaille. Millak asko dira Araba'n Bixente'ren eziketa ikutua daroen gazteak

ERRI-MISIOIOLARI-LANA.

Beti errenka eta minberatuta, irakaskintzagaz batera lan aundia eta zabala egin eban errietan misio edo gogo-jardun asteak emoten. Emen Bizkai'ko Mungia'n be ikusi genduan lan ori egiten. Egun guztia irakaskintzan bete ondoren egunero joaten zan misioiak emotera errietara berebillean.

EUSKERAZAINTZA.

Beti izan da Bixente euskalzalea eta bizi-bizi sartuta egoan Tolosa'n ain lan aundia egin eban Kardaberaz taldean: Eundak idazle, abade ta laiko, Barandiaran eta Lekuona'gaz batera alkartzen gintzazan aldi aretan.

Baiña ez etorren Euskaltzaindiaren jokabideagaz batera eta Lekuona zuzendarizatik ain gogorkiro kendu ebanean sutu zan bere eta beste askoren asarre ori

Eta Euskaltzaindiaren aurka agiritegi edo "expediente" bat egiteko asmoa artu eban Lekuona'ren bideari jarraituz. Dionisio Oñatibia lagun ebalu liburu bi argitaratu ebazan, lenengoa euskeraz eta bigarrena, zabalagoa, erderaz, Eus-

kaltzaindiaren jokabide okerra salatzeke. Biak dira irakurri-bearrekoak.

Eta batuaren amargarren urtea zala-ta 1978n. urtean Bergara'n egin zan azterketa-batzarrean argi agertu eban Kardaberaz'tarren arazoa. Eta Euskaltzaindia bere eritxi eta bideetan itxi egin zalako, akademi barri bat sortzeko erabagia agertu eban, Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia izango zana.

Berak egin ebazan ori lortzeko lan guztiak Madrid'en: Araudia aurkeztu, Ministroak onartzea lortu eta BOE'n agertu eta gizartearentzat onuragarri eta eta irabazi bageko bazkun lez onartu.

ELEIZEAREN EDESTI-LIBURU SORTA.

Bein baten Zunzunegi'tar Jose abade oso ezagun eta jakitunak auxe esan eutson:

-Bixente! Zuk irakaskintzan asko erabilli ta sakondu dozu Eleizearen edestia. Zergaitik ez dozu idazten euskeraz gai orreri buruz ¿Bear dozuzan liburu guztiak Seminario'ko Liburutegiak ekarriko dautzuz!

Esan eta egin! Asi zan Bixente idazten eta benetako altxorra diran 9 liburu eder idatzi dauz, bakoitza 500 orrialde ingurukoak, eta amargarrena amaitzen egoala joan jaku.

Nik birritan irakurri dodaz eta ez naz iñoz aspertu Ona emen bederatzi liburuen idazpuruak:

- I.-Apostoluen eta martirien denporako Eliza.
- II.-Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eliza.
- III.-San Ignazio'ren denporako Eliza.
- IV.-Denpora barrietako Eliza.
- V.-Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.-Denpiora auetako Eliza.
- VII.-Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.-Euskal kristautasunaren sendokuntza.
- IX.-Euskal kristautasunaren zabalkuntza.

NARRUKIEN AZTERKETA ETA IDAZKIAK.

Bixente'k alai eta zeatz egiten izan dauan beste lan bat erdiaroko narrukiak aztertzea izan da eta Euskerazaintza aldizkarian argitaratu doguz lan orreik. Bat geratzen da argitaratzeko.

Donemiliane'koak, Balpuesta'koak eta Pina'ko Donibane'koak izan dira.

"ZER" aldizkarian aspaldion idaz-arlo bi euki dauz artuta: "Euskalerritik mundura begira" eta "Erdiaroko ibiltariak Euskalerrian zear".

Euskalerrriaren lagun taldeak eskatuta beste liburu batzuk ba argitaratu dauz eta asko zabaldu dira.

Eskerrak Bixente'ri lan aundi orreikaitik eta betiko atsedena izan dagiala.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK.

– EUSKALERRIA ZELAKO JOKUAN SARTUTA DAGON (I) –

1.876`rarte Euskalerrria bere legediaren eragilletasunean jabetasun osoa euki eban, eta alai erabakiten zan.

Zergaitik ebagi euskun jabetasun ori ?.

Erregetzaren jaurkintza, berak sortu eban erriak bitartean-jarritakoa edo epaiketarako artekariaren lanezko izatasunean (arbitraje) ipinitakoa da; gaiztotu edo okertu zanean norkerizko jokoa alpertu ziralako erdikari-menperatzaillen alegiñakaitik zirikatuta, menperatzaillak beste aukera baten billa aldatu ziran.

Aukerazko era barri ori, erregetzaren jaurkintza ospe-gabetuko maldaberan asi zanetik artu eban, eta 1.789`an Frantzia`an egin zan iraultzaren ondoriotik etorri zan. Erdira-zale eskumatar menperatzaillak gudalostearen laguntzagaz jabetu ziralako, ekonomiaren banakuntza, euren sasi-asmotan iraun dagian.

Orregaitik gaur eta andik ona espataren indarragaz daukaguzan berezkotasunaren aurkako Laterriak ezarrita daukaguz.

Nik ez euke esango Zezar erromatarrengandik asmatutako Mundu onen batzangotasuna, eta Kristautasuna sortu ta gero, Konstantino`k 325`ean Kristautasunaren gain, katolikotasunezko alderdia asmatuta, gizarteko jaurkintzlegea eta bear dauan oituraren gogoko-ekandua ondo ordezkatuta joan daiten, Mundu onen gizarte guztia kirian-kirian edo urrenez-urren antolamenduzko erabide onbaten oiñarritu daiten, txarto egon zanik.

Baiña estukuntzazko edo premiaren lasterkazko bide-jarraiketean oiñarritu ziran, Mundu onen bizitza egun birako bakarrik izan balitz bezala.

Eta egitura orrek, gero ta geiago premiako indarra bear dauan lez, or asi ziran, bata gudalozteagaz eta bestea ziñeskintzaren arauakaz jota-ke beartzen.

Iñork ez dauka eskubiderik, JAINKOA`k Bere legearen bitartez emon dauskun agindua, ekintzazko bizi onetan gaia zeaztasunean ordezkatzeko, premian edo beartasunaren bidean jezartzeko.

a) Danak arduradun jaioten garalako.

b) Azkuntzaren Ikas-bideko ulertza, danoengaitik onartua izan bear-dalako.

d) Danok eta bakotzak daukaguzan bereiztasunak (caracteristikak) gardaiñatu, buztartu edo ordezko antolamendu on baten egokitu daitezcan.

Or ;dagoz Mundu onetako gizartearen eskubidezko zeregiñak.

Eta beartasunezko ziñeskintzan artu ziran beste bide orreik, JAINKOA`k bakotzari emondako giza-barneko (conciencia) zentzuaren bidez, erri-gizartearen ordezko ardurak borondate onean bete daitezcanen aurka, bereiztasunaren arrazoizko eskubideak sendotzen dira. Orregaitik gagoz eten-bako gero ta borroka lazgarritasunetan sartuta.

Gaur, beartasunezko ziñeskintzetan dabizenak, indar guztiak euren alde batu gure dabez. Nai-ta gaurko Mundu

onetan gizaren on-bizitzarako egin bear diran antolamenduzko aldaketak gizartearen eskubideetan oiñarrituta egin bear dirala esan, Mundu onen antolamenduzko batzangotasuna aginpe baten lortzeko, guzurra esaten dauskue. Azkuntza, espatakaz ipinitako Laterri menperatzaillak onein bitartez egin gure dabelako. Eta gaiñera, katolikotasunaren alderdikierizko asmo ori moral-arauz indartzeko, aukeratu daben Aita-Santua, ziñeskintzaren aldekoa izanez gain, gordetzaille zutsua da.

Orregaitik, ez da egia esaten dabena: “Gizartearen eskubideetan oiñarrituta egin bear dan aldaketa izan bear dala”. Leenengo: Dagozan sasi-jainko lainu ortatik, ez dabezelako gura oiñak gai onetan ezarri. Eta bigarren: JAINKOA`k gizarte guztiari emonda daukagun giza-barne au (conciencia), Erri-gizaren borondatea dana, beti-lez kontuan artugabe egin-gura dabelako.

Non JAINKOA ; Non DEMOKRAZIA ; Non GIZAREN-ESKUBIDEAK ;.

EUSKALERRIA:

Euskalerrria, bere bizi guztian borroka orreitan sartuta dago, eta bera da Europa onetan izar aundienetariko bat: “Giza-Barruko Nortasuna; Gizaren-Eskubideak; Egizkoak dirala Bakoitzak daukaguzan Bereiztasunak eta Bere Ondorioz emoten dauskuzan Izatasunak; Bai, Mundu onetako gizartearen urreratzeagaitik, ordezkatza danon artean ondoen banatu daiten, gaiak daukazan ankerkeritiek babes-teko eta abar”, aipatu dodan gauza guztien alde alegiñ aundiak egiten dabelako. JAINKOA`k emonda GIZABARRU orren ASKATASUNA dalako. Eta beren ondorioa dalako asken baten, gure bizitzazko ordezkaritzan “-ASKATASUNEZKO EGARRIA”.

Badakigu orduan, Mundu onetan berezkotasunaren gauzatik kanpo, dana guzurra dala: Nai belarki-saldoan, giza-arloan, nai meatzeko arloan. Gauza guztien nortasunezko izatea bereiztasunezkoa dalako, eta gauza guzti orreik naastu ezker ez-dakigu zelako maillararte agertuko jakuzan orren aurk-ekintzazko ondorio latzak. Orregaitik esaten da: “DANAK BATERA BAI, BAIÑA NAASTU GABE”.

Eta or katolikotasunezko alderdiaren pekatua, ziñeskintzaren bidean joatea gaitik, ez dauzalako onartzen, aztura-bideko ikerketan lortzen diran jakintzak.

Badakigu ba gaurko EUSKALDUNAK, EUSKALERRIAREN NORTASUNEZKO ASKATASUNA lortu gura ba-dogu, GURE izatasuna ELBURU edo IKUR-LEZ ipini bear dogula, arrokerizko norkeri eta alderdikierietan ibili barik, EUSKALDUN GUZTIEN arazo aundiena ASKATASUNAREN-EZA DALAKO.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.005`ean JORRAILLA`ren 20`an

SALMOAK

78na. LINBORA

Birgiña bere erretirora
 juan zan illundu zanean;
 ikusi zuan anima jeisten
 bere Jainkotasunean
 justuak zeuden linboartara
 kartzelan zeuden burpean,
 ateratzera zeruratzeko
 erosi zituanean.

Agertutzeko misterio au
 da erakutsi zaidana:
 lurran globoak diametroz ditu,
 neurturik erditik dana,
 bi milla eta bostean eta bi
 legua neurria daukana,
 milla berreun da berroetamaika
 diametro zabal duana.

Erdi erdian inpernua da
 kondenuatuak daudena,
 kaberna au da asko modutan
 miñ biziak dituen.
 Bere sarrera edo aua
 beti zabal dagoena,
 iñor ikusi eziñik eta
 azkenikan ez duena.

Inpernuaren alde batean
 dago purgatoriaoa.
 beren kulparen mantxa guztiak
 ondo garbitutzekoa.
 supritzen due eldu ditezen
 ikustera Jaungoikoa,
 inpernua bezin aundi ez da
 baiñan da surpitzekoa.

Inpernuaren beste aldean
 dago linbo partitua:
 bat da aurrentzat, iltzen diranak
 kendu gabe pekatua;
 eta bestea justuak zeuden
 kaberna itxitakua.

Azken juizioa pasa ondoren
 munduaren azkenean,
 ez da izango purgatoriorik
 juzgatutzen geranean.
 linboan dauden aurren animok
 daude erten bearrean,
 Jaunak jarrita dauka lekua
 grazian maitasunean.

Gero izango dira bakarrik
 zerua ta inpernua,
 zeruan beti betiko poza,
 zintzoak bizitzekua.
 Purgatorio ta linbo lekua
 geldituko da ustua,
 auen leku dana izango da
 inpernua biurtua.

Salbatzaillean anima santa
 zan linboan egon zana,
 ostiraleko iruretatik
 eta larunbata dana.
 Igande-goizako iruretan
 zan obi-lekura juana,
 aingeru ta justu-koadrillakin
 gaiztok bota zituana.

79na. BERBIZKUNDEA

Ta beste ezer egin baiño len
 izan zan erakutsia
 guraso santu justu aieri
 gertatua zan guztia:
 nola judutar aiek gorrotoz
 nai izan zuen iltzia.
 Adoratuta es-ana zuen:
 “Au da zorra ordaintzia”.

Ikusi zuen Adan da Ebak
 gorputz santu zatitua,
 zenbat miñekin erremediatu
 zuan beren pekatua.
 bere odolez gelditzen zala
 pekatua barkatua.
 Ain errukitsu izan zalako
 izan zan alabatua.

Ondorenean danen aurrean,
 aingeruak lagunduta,
 osatu zuen gorputz santua,
 jarri zuen edertuta.
 Istante artan bere anima
 gorputzarekin batuta,
 eman zion betiko bizitza
 aintzaz ta doaik sortuta.

Gorputz sorua doai aundiaz
 bat jaungoikotasunean,
 milla eguzkik baiño argigo,
 gaude ezin esanean.
 Arri-los aiek ikutu gabe
 erten zan nai zuanean,
 Ama Birjiñan sabeletikan
 bezela jaio zanean.

OTOITZA

Bere bost lllagak zeukatelako
gorputza itxusitua,
orain jarri zan argi brillantez
edertu ta indartua.
Danen aurrean jeiki zanean
ain gorputzez edertua,
agindu zuan bere antzera
piztuko zala justua.

Eta agindu zigun promesa
misterioz betetzeko,
asko animai agindu zien
beren gorputzak artzeko.
Auen artean Santa Ana ta
Santu Jose piztuzeko,
Santu Joakin ta justu asko
piztu ziran ez iltzeko.

Geldu ziran gorputzan, begiz
Jauna ikusten zuela,
esperantza eman zigun Jobek
ikusiko genduela.
Ama Birgiña misterioak
ezagutzen zegoela,
gelditua zan bere biotza
poz aundiña zituela.

Joan santua bere ustetan
Juanan zan Ama poztera,
billatu zuan argiz betea
aintzan seiñalez batera.
Begiratu zion errespetoz
arriturikan batera,
juzgatu zuan: “Juana piztua
elduko zan ikustera”

80na. AGERTZEAK

Salbatzailleak, piztu zanean,
Ama bixitatu zuan,
eta Jaunaren aintza ederrez
betea zuan orduan.
Nai izan zuan aita ta artzai
izan gurekin munduan,
bere ardiak bildu nai zitun
bildurrez junak orduan.

Beti berekin lagun zebiltzan
lengo guraso santuak,
baita linboko animak eta
purgatoriotik artuak;
Ama Birjiñak bakarrik auek
ziran ikusitakuak,
berrogei egun Zenakuloan
ziran Amak pasatuak.

Jauna agertzen etzan guztian,
juaten zan Amarengana,
zerura igo zan bitartean
eramanaz jende dana.
Ama Birgiña santa danakin
zan itz egiten zuana,
alaitutzen zan Erregerekin
bera Erregiña zana.

Mariak emakume santakin
gorputz illa nai zuela,
sentitu zuen bildurgarrizko
lur-ikara zirjuatzela.
Ikudi zuen aingeru batek
arria bota ziela,
zaitzen zeudenak gelditu ziran
lurrean illak bezela.

Iñork etzuan ikusi Jauna,
Orduan an etzeguan;
lenagotikan piztua zan da
aterik bear entzuan.
Mariak zerbait bildurrez baiña
billa juan ziran orduan,
arria bota zun aingerua
an eserita zeguan.

Ilda bezela zeuden guardiak
eldu ziran bizitzera,
ikusi zuen atea zabal
ta juan ziran ikustera.
Gorputza illa an etzegoan
ta jun parte ematera,
printzipe eta apaiz aieri
gertatua esatera.

Gelditu ziran konfundituta,
bildu ziran asmatzea;
asmatu zuen diru askokin
guardiai agintzea:
“Gulo geundela bereak sartu
gorputza arrapatzea”.
Gezur au askok sinistu zuen:
lotan ikusi artzea.

Mariak zeuden atez kanpotik
danak oso arrituta,
ta Madalena billa negarrez
jarri barrura sartuta.
Apostoluai aingerurikan
etzitzaien agertuta.
Madalenak bai itz egin ere,
zala negarrez lertuta.

**ALDALUR´TAR JUSTIÑE
(KLARATARRA)
(GAZTEIZ)**

KATOLIKU-EKINTZA ZALA-TA

Galdakao'n Kurutzeko Andra Mari Eleizan Katoliku Ekintza, antza, D.Domingo abadeagaz edo bere denporan sortu zan .

1943-44n. urte-inguruan sakristian erderaz teatrokoak edo olakoak be egiten asi ziran. Ortik, gero, ziñe mutua emoten eben eta pin-pon jokatzeko maia eta parxis-jokoak be egiten ei ziran: jentea orrelan gazte aldetik batuta egon eitean.

D. Maurizio Mimenza Larrauri abade jauna 1950n. urtean Galdakao'ra etorri eta 1960n. urtean Bilbo'ko San Anton'go eleizara joan zan. Egiarte'k dato au eta laguntza asko emon daustaz.

Baiña 1951n. urtean Kontxi Gainza eta Zugutzu'ko mojetan zebillen neska, Grabe (Urreta'ko kantarearen jaube) jaunaren alabeak dantzan irakasten eutsen, euskal dantzaren bat-edo. Eta Kurtzeko Dr.Gandasegi izena dauken eskoletan be "Seccion Femenina"koak eskolakoai dantza pare bat irakatsi eutsezan. Gero mojetako neska batzuk Udaletxean egoan toki batera dantzan joan eta ortik, Zornotza errian egoan "Sección Femenina" ko tokira be euron urten-aldia egin ei eben.

Kontxi Gainza'k esanda, Amaia'gaz eleizako sakristian mojetatik geroago dantza egiten asi ziran.

1953n. urtearen inguruan, lenago ez, Kabo jaunak Kastoliku Ekintzako tokian, antza teatro zuzendari egin eban, eta Rufino Ereño jaunak jentea gertatu eta eurokaz ensaioak egiten ebezan eta "Medico a palos" teatroa egin eben. Bueno, teatrotxuak izaten ei ziran.

Esaneko teatrotxu orrietan Sabino Larrea eta Iñaki Zuazo jaunok be parte artu eben.

Iñaki'k jitanu edo ijito papela euki eban lez, etxetik oillo bat ekarri eban eta garrion eskegita eukala bete eban ijito-papela.

ZER 304 aldizkarian be nire artikulua baten, Amaia Orrantziak 16 personaren izenakin zerrenda bat bialdu eustan, 1956n. urtean abenduaren zortzigarren eguneko zala esanaz eta neska areik beragaz dantzan egin ebela eta neuk neure urrengo artikuluan idazteko. Amaia'ri esan neutson nik zerrenda orretako izenak ez nebazala idatziko eta artikulua errakuntzaz beterik egon moduan

be ez. Ze Abeli Gutierrez'ek beragaz egundo ez ebalako dantzarik egin eta Bego Etkezarraga baita Karmen Egizabal'ek 1952n. urtean bai dantzatu ebala baiña 1956n. urtean ezetz. Eta Mari Luz Maron eta Arantza Yugero'k naita dantzatzeko erropakin jantzita egon, zintadantzako arbolea eutsiten 1956n.´ean bai egon zirala, ta Arantza urten zan berentzako erropak ekarri ebezanean eta ez lenago.

Arantza'k eta Maron'ek 1960n. urtean Zugutzuko monjetan dantzan ikasi eta dantzatu eben.

Mari Karmen Zabala'k 1955n. urtean estudioetatik etorri eta ez ebala egundo dantzarik egin. Eta Zorriketa'k be ez ebala iñoiz dantzarik egin. Geroago Amaia'k beste izen batzuk eta nota batzuk be emon eustazan, guztiz 26 neska izenak. Makiñaz idatzitako 1956'ko papel orretan diño arkupetatik urten zirala arin-arin dantza egiten eta txankarrankoa jokatu ebela. Baiña ez giñan arkupeetatik urten sakristitik baiño. Eta bere orrialdean diño Zuaitz zuri bat plazearen erdian ipiñi eta bere



txingol gorri ta berdeak gurutzatzen asi zirala. Eta txankarrankorik ez zan dantzatu.

Baiña dantzaldia 1956n.´ean asita eta abade-etxea eta beroko kamiñoaren artean egin zan neu txistulari nintzala Eta ez ziran kolore zuri-gorri eta berdeak erabilli, bestela txistularia lenengo zala eta gero beste guztiak. kartzelaratuak ginduezan.

Ikusirik Amaia'k baildu eustan artikulua orretan egi batzuk eta errakuntza asko egozala, esan neutson nik ez nebala ezer idatziko, neu gogoratzen nazenakaz izan ezik eta ori neskari lendik galdetu eta orrelan iru izenak agertu nebazan eta

ez 1956'koak. Ezpabe ze, 1952'an dantzatu ebenen abizenak. Nire erantzunagaz konforme ez, ZER 304, 14n. orrialdean datorren lez, eta Amaiak esan eustan berak idatzita artikulua bialduko ebala eta oraingoan 1956n. urtean barik 1952'an beragaz dantzan egin ebela eta errakuntza andiagokaz ZER 307n.ean, 13n. orrialdean beren lana gaizki agertzen dau.

Lenengoko urte areitan Katopliku Ekintza'ko gazteen artean, batzuk behintzat euren komenentziko gauzak baiño ez ebezan irakasten eta euskal gogoa ta euskerea be erakusten emotea galazota egoan, arerio asko berton be egoten ziran-eta.

Orduko denporetako neskak, gaur andra diranak, be auxe diño: Amaiak ustea dau bai 1952'an eta bat 1956'an dantzatzeko Katoliku Ekintzako neska danak dantzan egin genduala, baiña ori ez da orrelan. Neska gitxion artean dantzatu zan-eta.

Zabalgane-aldean, Kurtzeko parrokiaren dagoen abade-etxearen aurrean, argazkiko etxe ori Zabaleatik datorren kamiño-kontzan dago.

Eta ume irlandera, eleizea, abade-etxea eta argazkiko etxearen erdi-inguruan 1956n. abenduko 8'an dantza egiten agertzen dira. Zinta-dantza zortzien arte-edo, egin eben eta besteak jota eta arin-arin, danak sakristitik urten eta gero. Eta txikerrenen artean argazkian agertzen dan lez, biribilketa dantza egin eben

Argazkian agertu ez arren, eta naita irlandera jantziekin egon, jentearen artean sartuta egozanak Jauregi, Dalmau eta

Beitia neskak izan ziran.

Jose Mariano Barrenetxea txistulariaren ezkerretik, Petrita Gonzalez, eta onen ostein Mari Karmen Iturregi. Oneikandik ezkererago Rosalia Moreno eta onen ezker-aldean Maite Urrutikoetxea, danak irlandera jantziekin. Betaurrekoekin dagoan mutilla Migel Lara dogu. Norbaitek kontuan artu bearko leuke, naita nere burutaziño edo komenentzira-ko izan, ez leitez ez esan eta idatzi be egin bear. Amaia'k be orduko denporetan bere lantxua egin eban. Bakoitxari berea emon bear jako.

Jose Mariano Barrenetxea

KALE-IZENDAGIA

LUARRETA plaza: **Luarreta** (1910) da izatez lur saila andia, **Atxaga** izenekoaren ondoan dagoana. **Luarreta** lur saila **Uribarrigoikoa** izeneko baserrikoa izan zan. Lur saila orren zati baten txaletak eginda dagoz, beste baten bertan aitatu dogun plaza barria.

LUZARRAGAKO BIDEA: **Luzarragako bidea** izena leenengoz 1945. urteko idaztietan agertu da. Gaur egun be, alantxe esaten jako.

MENDIALDEKO BIDEA: **Atxuloko bidea** (1953) izenagaz be ezaguna izan da errian, bertaginoko bide izan zalako. Baina beste izen bat be erabilia izan: **Oiagako bidea** (1946). Gerogarrenean, orain uste asko ez dala, **Urizarreta** (1704) edo **Oruezarreta** (1641) izeneko aldeetxegino zabaldu zan bidea. Guk geuk, oster, erdibidean lotu gara eta **Mendialdeko bidea** (1844) izena aukeratu dogu.

MIETA kalea: **Mieta** aldeetxea (1847) orain dala 100 urte inguru galdu ei zan. **Txontxoena** (1895) izenagaz be ezaguna izan zan errian. Ortik be **Txontxoenasolo** (1910) deritxo soloaren izena, Mieta etxekoa izan zalako. Geroago baten, gaurko *Txontxone* etxe barria bertan egin zan. Kaleari izen ori imini deusagu a etxea gomutauarren.

MINITUALDEKO BIDEA: Izen onek (1962) adierazoten deusku norakoa dan bide ori. Izatez, **Minitua** eta **Minituatzea** etxe biok egiten daben ingurura joatekoa da izan. **Minitualdeko bidea** (1962).

ONDARRAURREko plaza: **Ondarraurre** (1910) izeneko soloa **Ondarra** (1644) aldeetxekoa zan, **Ondarreko zubia** (1930) deritxonaren ondoan egoala. Gaur egun, plazatxu artzekoa dago inguru onetan, eta ortik , bada, izan au izenagaz be ezaguna izan zan.

ONDARREKO ZUBIA: **Ondarra** etxea izen andiko olea eta errotea izan zan sasoi baten, eta aren aurrean egin eben Ondarreko zubia deritxona, ortik izena. **Ondarraurreko zubia** (1940) izenagaz be ezaguna izan zan.

PORTUONDOKO BIDEA: **Portuondoko bidea** (1950) era bietara ageitu da idaztietan, agoz be Portuondoko bidea esaten jako.

PORTUONDOKO Plaza: **Portuondo**, **Portuondotxu** (1893) eta **Portuondobarri** etxeak egozan orubetan. añdeetxe orreetako soloak-eta be **Portuondo** izenagaz ezagunak izan dira. Ortik bada **Portuondoko** plaza izena.

QUINTATORREKO BIDEA: Idatziz 1910. urtean agertu da leenengoz izan au, agoz, orain be, alantxe esaten jakola. **Quintatorre** etxea 1896. urtean egin zan **Urkitzaurre** (1641) aldeetxekoak izan ziran **Zearsolo** (1890) eta **Kurtzeperio** (1890) uzeneko lur sailetan.

SAN PELAIOKO bide nagusia: Erriko bide nagusiaren zati au **Basigokoa** baino beluagokoa da, **Zubiaurrealde** eta **San Pelaio** Bermeokoak ziranekoa. Zatirik andiena San Pelaio auzoan dago, orregaitik, bada, izena. **San Pelaio** bide nagusia 1930ean amaitu zan.

SANTA KATALINAKO ZUBIA: **Santa Katalinako zubia** izena 1847. urtean agertu zan leenengoz idatzita, agoz be alantxe erabiltzen da gaur egun Bakion, **Santa**

Katalinako ermitearen ondoan daoalako. Beste izen batzuk be izan dira: **Ibarrako zubia** (1889) eta **Ekolaldeko zubia** (1932).

SOLOBURUKO bidea: **Soloburu** (1896) da **Zarrakoa** izeneko atxen ganean dagoan mendiaren izena. **Soloburu** barruan dago egon **Birjilanda** (1834) izeneko ingurua. **Soloburuko bidea** izeneko **Erreterria** aldeetxekoa izan zan **Etxeondo** (1915) izeneko lur sailan dago. Izena geuk imini deusugu oneri kaleoneri, zelan edo alan, **Soloburu** mendirantza doan bidea dala adierazoteko.

TXIRRIKALDEKO BIDEA: **Txirrikalde** (1941) izeneko auzodia Artetxealdetik (1857) **Osiñaga** (1765) aldeetxeginokoa da (**Artetxe**, **Beitia**, **Gorrondona**, **Pozuaga**, **Abaroa** –1839, **Etxebarrialde**, **Orue** – 1704, **Larraskoaga** – 1745, **Larraskoagagoikoa** – 1839, eta **Osiñaga**). Alan bada, bide au **Bentaurre** (1910) izeneko lur sailan asita **Txirrikalde** izeneko auzodiginokoa da **Txirrikaldeko bidea** (1955) deritxona.

TXONTXOENASOLO kalea: **Txontxoenasolo** izeneko soloa ezeze, zati baten **Txontxoena** (1893) izeneko ziitzea be bazan. **Mieta** aldeetxekoa zan, 1910. urtean **Muxikena** (1641) baserrikoa zala ekarri arren. An dagoan kaleari, bada, ango izena imini jako.

Udaletzeko plaza: Bertako leku-izena **Solobarru** (1890) da, leen **Urkitzaurre** baserrikoa izan zana. Ez deusugu izen orreri egoki orrako, eta plaza udaletxearen aurrean dagoan ezkerroan, aukeratutako izena egokiagotzat emon dogu.

URIBARRIKO BIDEA: 1939an agertu zan bide orren leenengo errefeentzia idatzia, **Uribarribekoa** (1704) aldeetxetik **Luisena** (1775) baserriginoko bidea, atan be. **Uribarriko bidea** izena gaur egin be agoz esaten da errian.

URIBARRIKO Kalea: Erreka nagusiaren alderdi bietan egon **Urzabal** edota **Txontxoena** izeneko padura-ziitzea. Padura ori siketan ibili ziran 1899. urtean eta bertan egurrezko zubia egin eben, **Urzabaleko zubia** (1899). Alan bada, padura orren alderdi batetik bestera doan kaleari **Urzabaleko kalea** eritxi deusugu. **Urzabaleko zubia** kale orren zati bat baino ez da, errekearen gankoa, atan be.

UZABALEKO ZUBIA: Erreka nagusiaren alderdi bietan egoan **Urzabal** izaneko padura-ziitzea. Padura ori siketan ibili ziran 1899. urtean eta bertan egurrezko zubia egin eben, **Urzabaleko zubia**. Domingo Goitiarena izan zan erreka nagusiaren ezkerreko errekaldean egoan padura, **Urzabaleko zubi** moila barrigino (1902). Zubi ori barriztetako proiektua 1907an onartu zan eta zubia 1930ean amaitu. **Zubibaltza** (1923) izenagaz be ezaguna da errian.

ZABALA bidea: **Zabala** (1910) edo **Zabalsolo** (1910) izeneko soloa izan zan, **Etxebarrialde** eta **Ardantza** (1677) aldeetxetakoak izan be. Tokian tokiko izena imini jako, bada, daleari, bedetzat artuta.

ZARRAKOA bidea: **Birjilanda** azpian dagoan atx moltsoari **Zarrakoa** deritxo, **Urzabal** izeneko padurea

amaituten zan lekutik **Muxerratxe** (1982) edo **Muxerrari** (1919) izeneko atxeteginokoa, azken oneek barruan dagozala. Gaur egun moilea dagoan lekuan dago dalako Zarrakoa ori. Alanda ze, ara doan kaleari au izenau imini deusogu, bidetzat artuta. Aurrez aurre dago **Ansoarria** (1729) edo **Kurtzekoatxe** (1749) izenekoa, leengo Bermedo eta Bakio bien arteko azkenego munarria.

ZIITZALDE ko oinbidea: Ango leku-izena **Urzabal** izan arren, eta a padurea eta zati andi baten ziitzea be izan zan ezkerroan, oinezkoen bide orreri **Ziitzaldeko oinbidea** izena eritxi deusogu. Agos be **Ziitzea** (2000) leku-izena batu dogu bertarako.

ZUBIAURREKO ZUBIA: Zubi onetarako orain arte batu dogun izenik zaarrena dogu: **Gabantxoko zubia** (1576). **Esteponako zubia** (1732) izenagaz be ezaguna

izan zan. **Zubiaurreko zubia** (1908) izena, baina, aukeratu dogu egokientzat, alantxe da ezaguna gaur egun be.

ZUBILTEGI bidea: **Zubiltegi** (1884) eta **Zubiltegi-barrena** (1910) izeneko soloak Aldekoa (1704) aldeetxe-koak ziran eta **Zubilletasakona** (1889) **Gaubeka** (1636) baserrikoa. Bide barri ori **Zubiltegi** deritxen lur sailen ondo-ondoan egongo da. Bidean zear dagozan lurak, bertan eta beronen ondoan, beste batzuen artean, izen oneek daukez (1910): **Ibarra**, **Ibarrandikoa**, **Ibarguren**, **Ibarrrekosolo**, **Ibarreta**, **Ibarretako txantela**, **Ibaretamanusolo**, **Ibarretasolo**, **Ibarretasolonagusi**, **ibarretasolotxikerra**, **Ibarretatxikerra**, **Ibarretatxu**, **Ibarrondo**, **Ibar-txu**. Aukeran bada, **Zubiltegi** izen zaarri eustea eritxi deusogu ondoen.

IÑAKI MARTIARTU

AFRIKA TA EGOALDE IZOZTUA

Europa'tik urrean dago Afrika eta iru bider aundiagoa da. XIX gizaldira arte ez zan Afrika-barrura sartu Europa'tarik, itxas-ertzeko lur beroetatik barrurago ez beintzat.

Ez eban ba ezagutzen Afrika eta oraindiño be lurraren garri-aldean dagozan baso baltzak ez dira ondo ezagutuak. Ba-dakigu lurralde euritsuak eta beroak dirala eta bertako zugatz-tantaiak oso aundiak. An gizakirik ez da bizi, bai sugeak, muskerrak eta kokodrilloak, baita iñurriak eta euliak be. Urtzen ez diran edurrak be ba-dagoz 6000 m. gora diran mendietan.

Lurraren garriaren iparraldera ta egoaldera zabaldi izugarriak dagoz zugatz barik eta bedar aundiz beterik, elefantez, jirafaz eta ipipotamoz jantzita. Leoiak eta panterak dira onein eiztari.

Alde bi orreik baiño iparrerago eta egorago basa-mortu bi dagoz, Sahara aundiarena arriz eta arez beterik.

Iparraldean Nilo ibaiak buztiten dau Ejipto jentez bete, K.a. ko 3000n. urtean asita. Uri zarren ondakiñak agiri dira.

Lurrarte itxasoaren ertzean matsa ta igaleak dagoz ugari. Arabiarrek bereberakaz batera bizi dira. Gizon zuriak geienak.

Egoaldeko musturrean europar asko bizi dira eta meatzetan egiten dabe lan, urrea ta diamanteak aterateko. Lur-gaiñean azukre-kañaberak eta ekait-arlo zabalak dagoz.

Lurraren garri-aldearen sartaldean eta sortaldean

ez da bizi europar asko, baiña basapiztien eizarako (safarietarako) tokiak dira eta portuetan salerosketa dago ugari uri aundietan eta ortik datorkuz marfilla, zura, platanoa, kafea, kakaoa ta liñua.

Afrika legorra ta baltza dala esaten da eta bizilagun guitxi daukazela. Irutik bat baltzak dira.

EGO-ARDATZ-INGURUA

Ez dira eun urte gizakia egoaldeko lur izoztu edo leitura eldu dala.

An urterik erdia da gaua eta beste erdia eguna, ez dago udarik, ez izotz edo lei artean landararik, ez bedarrik. Piztiak gitxi: Fokak, itxas-otsoak, itxas-egaztiak, baleak eta pinguinoak.

Dana dala, eldu dira ara lur-aztertzaileak, ardatz-bururaino txakur eskimalak euren trineoakaz laguntzaile dabezela. Asko il ziran azken-nera eldu barik, mendi bazterretan.

Azkenean, 1911n. urtean eldu ziran talde bi ego-ardatz edo "polo sur"era. 3000m. ko goi-errea eukan leku batera, Noruega'ko Amudsen buru zala talde bat eta Scott anglandarra buru ebala beste. Azkenengo au illebe-teroago eldu zan eta antxe il zan bere lagunakaz edur-ekaitzak jota.

Arrezkero asko joan dira eta jakintsuak txabolak egin dabez bertan luzaro egon eta giroa ezagutu eta aztertze-ko.

OLAZAR'tar Martin'ek



Africa zabala

VI.-PIZTIAK ETA ABEREA: ITXAS-PIZTI AUNDIAK

Itxasoko baleak berba egingo ba'lebe gauza arrigarrak esango legiskuez.

Balea maltzurra da. Berba egingo ba'leu esango leuskigu: "Non dagoz arrain lez artzen ninduen aldi areik? Lenengo ni arrapatzeri ona etorten ziranak Bizkai'ko euskaldunak ziran.Gero lagunak aurkitu ebezan. Ikusgarriak ziran bale-ontzi areik,oialak zabaldua,Ternuara bidean, ekaitzari gogor egiten,arik eta batek dei egin arte: "Balea agiri da!"".

Orduan txalupak uretara botaten ebezan, ordu osoak nire atzetik ibiltzen ziran eta arpoilariak trebeak izan arren nik sarritan onik urtetzen neban. Gaur ontzidi osoa ibiltzen da nire atzetik kañoiakaz, eta radarragaz ikusten nabe urpean nagonean be. Gaur bale begizatua, bale arrapatua da. Gero ontzian bertan zatituten nabe.Ez da gauza erreza ogeta amar metroko arraiña zatitzea.

Berreun metro urperatuko naz eta or ez nabe arrapatuko. Orretarako neure barruan 4m3 aize gorde neikez eta algak dira nire janari.

Iparraldea itzi eta toki epelago batera joan bear dot, bidean ur-gaiñeko arrain txikiak jango dodaz. Gaiñera olako arrain txiki asko bear dot neure umei jaten emetoko.Nire esneak egunero 90 kilo koipe kentzen daustaz. Ori dana lortzeko lan egin bear izaten dot eta orrelan lortzen dot itxasoan diran kumerik ederrenak eukitea. Oneik jaioten diranean 7 m. luze eta tone bi pisu dauke.

Bidean gure lengusua dan katxalotea aurkituko dogu. Katxalotea burrukalari gogorra da eta itxas-ontzi osoa txikitu leike agiñakaz. Arek ortzak daukaz, nik osteri bizarrak baiño ez.

Atlantik itxasora sartzen ba'naz an topo egiongo dot mazopa'gaz. Au ekaitza danean ur-azalean jauzika ikusten da eta arrantxuak iruntziten ona da.

Egoaldeko itxas-erdian ikusiko dogu bidean doala itxas-txalen taldea. Oneik ez dira nire sendikoak, lurrean be ibiltzen dira-ta. Neu be orain milloiak urteak dirala lurrean ibiltzen nintzala diño, baiña ni ez naz oroitzen.

Itxas-txalen kumeak politak dira, maitekorak, kolorezko begiak, baiña euren gurasoak ur-gaiñean denpora geiegi galtzen dabe jolasten


Iru milla kilotik gora dauke itxas.elfanteak eta burrukalari onak dira.

Itxas-beiak be antzera jokutzen dau eta urriñetik entzuten jako orroaka dagoanean. Itxas-beiaren agiñak marfil ederra dauke eta eiztari marfil-zaleak erasoten dautsoe.

Arrain-idi ta dugoak isilkorak dira. Itxas.ertzeko bedartzan jaten dabe, baiña baldarrak dira, errez izten dabe euren burua etsaiaren esku.

Agur! Neure umeakana joan bear dot!" Orrelan berba egingo leuke baleak, berba egin al ba'leu.

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua.



6. EBERTARRAK (K.A. 1800-500)

Munduaren berezko aurrerapidean erriak sortu ziranean, Jainkoak beretzat erri bat sortzeko asmoa agertu eban eta erri ori izango zan bide Jainkoa Egilleak Iudia gaizkatzeko bere semea mundura bialdu egian.

Ebertarrak jente ibiltaria, nomadak, ziran, antxiñatik artzain-erria eta erri txikia.

Kaldea'ko Ur erritik Jainko bakarraren gurtzaille izateko alde egin eban Abraanén ondorengoak, antzain lez Kanaan'en asi ziran bizi izaten, baiña goseak eraginda Ejipto'ra aldatu ziran gari-billa eta an Faraonék morroi biurtu ebazan eta bizi era orretara moldatu ziran.



zun-torriko erria ziran hebertar edo judaak.



Zapallean autok basamortu-anli oderrik, heren joanalarriun.



Lotu finkatuole arr-ozanetas usi ziran.

Ejipto'tik eta morroitzatik iges egin guraz, basamortuan bizi izan ziran luzaro euren lurralderantza joiazalakoan.

Bidean joiazanak ez eben ikusi bakezko orio-abarra ekarren usoa. Geroago euren errira sartu ziranean be ez. Lur menditsu eta arritsu aretan bizi izatea ez zan erreza.

Gaiñera erbesteko erritarrak etorri eta zapaldu be egiten ebezan, erbesteko ogia negarrez jan bearrean euren buruak ikusi arte.

Baiña erri onen elburua erlejiñoa zan eta orretan aurkitu dau bere aunditasuna.

Eurak izan ziran beti Jainko bakarraren gurtzailleak. Biotzez gurtu bear zan irudi bageko Jainko aundiarenak.

Eta gizaki lez, guztiak senide zirala uste izan eben, Jabe Jainkoaren seme-alabatzen euren burua artzen ebela. An ez egoan beste errietan lez bereizkuntzarik, ez ziran batzuk aberatsak eta beste batzuk txiroak.

Asieran ez eben erregerik onartzen, epaikariak edo auzi-maixuak ziran euren zaintzaille Geroago erregetzaren bidea artu eben, baiña edozein artzain-mutil zan egoia errege izateko, Dabid esaterako.

Erri onek liburu bereizi bat dauka, munduan gitxi dagozen liburuetarikoa: Itun zarra. Liburu onen gaiak oneik dira Erriaren artzain-aldiko albisteak, erregeen garaipenak eta jipoi-aldiak, kanta zarrak eta atsotitzak eta elebarriak. Israel erri osoa liburu orretan zelan edo alan sartuta dago.

Banaka batzuk biurtu ziran jainko izunetara, baiña ebertarren erriaren sinismenak beti iraun dau bizirik.

OLAZAR'tar Martin'ek

Ebertarak Ejipto'n morroi



LUDIKO LORATEGIAK

Ba-da Suezia'n ipar-obao baiño gorago, Abrisko izena dauan erri koskor bat. Zoaz ara eta itaundu egiozu geltokiko tren-zaiñari: Zergaitik urestatzen dozuz neguko zure landarategiak edur-denporan? Eta berak erantzungo dauzu: Auxe dalako nik ainbeste maite dodan lorategia.

Guk be geure lorategitxuak daukaguz balkoietan eta bazterretan, ondo maite doguzanak gaiñera.

Dakigunez, lorategien lenengo saioak ez ziran izan Babilonia'ko zintzillik egozan areik, lenagokoak dira. Ez dauku iñok idatzita itzi albisterik, baiña Pertsia'n, orain iru milla urte, ba- egozan olako larategiak.

Nilo ibaiaren uriolak dira Ejipto'n lurra ain emonkor egiten dabenak. Ba-ziran an lorategi ederrak eta luzaroan izan ziran erregeen apaingarriak. Oneik urrutira bialtzen ebezan menpekoak usain gozozko lora-landarak ekarteko.

Erdi-aroan eta batez be berbizkunde aldian Italia'ko lorategiak edertizko baratzak ziran eta orregaz asko poz-tuten ziran.

Lur Santuetara ibillaldiak egiteko sasoia etorri zanean, ara joaten ziran zaldunak lora barriak ekarri ebezan.

Begien atsegin utserako sortzen ziran lorategiak ez ziran asko, baiña 1494n. urtean VIII Karlos erregeak arte-zale italiarrak bialdu ebazan Amboise'ra eta arein artean lorazale bat joian.

IV Enrike errege zala, Mollet Klau-dio'k lora-baratz batzuk eratu ebazan, orduko jantzi apainduen antzekoak. Jau-regi askoren inguruan agertu ziran gero olako baratz ederrak.

Baiña Le Notre izan zan Frantzia'ko erara lenengo lorategiak egin zituana. Ikusgarriak benetan Versailles eta inguru-ko loretegi miragarriak. Lora-baratz areik egokiak ziran lagunak artzeko eta jaiak ospatzeko: Ibiltegi ederrak, ur-izpilla ikusgarriak, iturriak... alkar osotzen eben.

Amaika erri alegindu dira lorategi ederrak zaintzen!

Ingaterra'ko lorategiak ez dira Fran-tzia'koen antzekoak. Zugaztiak etxe-ondoetara eltzen dira eta orrekaz nas-tean agertzen dira lorak

Baiña lorategirik arrigarrienak Ara-bia'n dagoz. Nagusiarentzat eta lagunent-zat eratzen dabez. Barruti itxietan dagoz, burdiñezko sareakaz inguratuta, ur ibltari-en mur-murra doi-doi entzuten dala.

Lorategirik entzutetsuen bat Grana-da'ko Jeneralife'n dago.

Japondarrak lorategi txikiak eta asko daukez.

LARROSEA

Lora guztien artean erregiñea, larrosea da. Guztien artean ederrena dala dirudi. Olerkariak euren gai lez beti artu izan dabe larrosea.

Persia'n sortua da eta gurutz-gudariak ekarri eben 1254n. urtean Damasko'tik, eta VIII Karlos erregeak lurtean sartu ebazan Paris'en, Bastilla egiten asi ziranean. XVIII gizaldiaren azkenerrantza ez ziran ezagutzen 30 mota larrosa baiño eta orain amar milla mota inguru dagoz.

Bagatella'n larroseari urtero jai bat egiten dau-tsoe. Beste leku batzutan be gero asi dira jai ori ospatzen.

"Larrosa bi"rena esaten jakon gudaldian, larrosea zan ikurriña.

Ba-dakizue sortaldean larrosak gozoki eginda jaten dabezela?

Lora au beti zaindu da munduan ardurarik aundienaz, baiña lorea bera apur bat basatia da, izan be basoko larrosen ondorrengo dogu. Larrosa azia erein ezkerro, beti urteten da basoko larrosea, txertatu egin bear da beste larrosa-mota bat sortzeko.

IDI-BIOTZA EDO TULIPANA

Lora onek ibillaldi aundia egin dau: Turkestan'en asi eta onaiño etorri da.

Turkiarrak ekarri eben XVI gizaldian Europa'ra eta abegi ona egin jakon gure artean. Frantze'ko ta Olanda'ko itxas-ontziak joan bear izan eben urrutiko bere sorterritik ekarteko.

Lora jantzia zuria dauko baiña bio-tzean beste margo batzuk be bai.

Orain Olanda'n dauko sorterrri barria, ainbeste mota dagoz bertan. Eta XVII gizaldian dirutza aundiak emoten ebe-zan lora onen zale ziran olandarrak, baiña zori txarrekoa izan zan tulipan bal-tza sortu ebana: Espetxean bizi bear izan eban.

Harlen'en tulipan'en boltza bat sortu eben eta neskatilla baten ezkon-saria zelakoa izan zan adierazteko, zenbat tulipan zituan itauntzen zan.

Izan ziran idi-biotz edo tulipan onen zale batzuk, eurak il baiño lenago olako lora guztiak zapuztuteko agindu ebenak, arein ederra beste iñok gozatu ez egian.

Bai ederra kukulu garbia dauan lora au! Nok aitzu udabarrian zelaian edo aize-errotan inguruan edo urbide isilletan, txalupak txirristan doazela, ikusita-ko idi-biotzak, tulipanak?

OLAZAR'tar Martin'ek moldatua.



NIKOLAS MALEBRANTXE (1638-1715)

Paris'en jaio eta Felipe Neri deunaren Oratoriokoa izan zan, Berulle kardinalagaz batera. Antxe ezagutu eban San Augustin'en eta Deskartes'en filosofiak. 1664n. urtean egin zan abade.

Bitartean Paskal itzita, barriro sartzen gara Buru-argiaren bidera, baiña kristautasun zintzoa dauan abade bategaz.

Malebrantxe'k filosofi kristiñaua nai dau ba agertu, fedea eta burubide argiak bide dirala.

Aristoteles'en bidearen aurka dago eta bere ustes Des-kartes'ek ogeta amar urtean egi geiago aurkitu eban beste filosofo guztiak edesti osoan baiño. Teolojian antxiñakoa artu bear dogu, filosofian gauza barriak. Dana onartu bear dogu zalantzarako biderik ez dagoanean.

Nondik sortzen dira burubide edo ideak Malebran-txe'rentzat? Emen Deskartes'en bidea bera artzen dau eta burubide argi eta ziurrak dira ezagutzeko bide bakarra. Zentzunak onak dira baiña ez ideak sortzeko bide lez.. Somatzen dogun beroa ez dago or kanpoan, geure barruan baiño. Orregaitik kanpoko izakiak ezagutzeko ez dogu joan bear kanpora geure zentzunakaz, irudimena isildua-zo egin bear dogu. Bidea ez da Aristoteles'en zentzun-bidea, eta ez Platon'en burubide adimenean jaiok be.

Lau era daukaguz gauzak ezagutzeko: gauzak eurak Jainkoa an dagoalako, ideak daukaguz bide lez eta oneik euren zertasuna dauke Jainkoagan, idea orreik geure buruan dagoz eta geure kontzientziagaz ezagutzen doguz, bizi-ikasia, eksperimentzia dira eta ideak alkarregaz konparatzen doguzanean ezagutu egiten dogu ustea euretan ipinten dogulako.

Jainkoa zuzen eta idea barik ezagutzen dogu. Baiña nondik datoz ideak eta zer dira? Augustin deunak irakatsi eban lez, ideak betikoak dira, bearrezkoak dira eta zertasu-na dauke eurengan. Ez dauz sortzen gure gogoak, ez doguz aurkitzen asieratik bertan jaiota, ez doguz lortzen

Aristoteles'en kenketaren bidez, guk ideak Jainkoagan ikusten doguz, Jainkoagan ikusten dau gure gogoak Jainkoak egin dauana dana.

Orregaitik ez dauz onartzen ideak ezagutzeko bide lez, gure adimenak artu egiten dauz, ez sortu, arimea ta gorputza gauza bi dira, Jainkoa da gauzak argitzen dauskuzan indar bakarra. Eta jainkoa ba-dago, ez dago ori baieztatu bearrik, orixe da idearik argiena, "pentsatzen dot, orduan ba-naz" dan bestean argia da idea ori. Eta or dago inguru-ko mundura gu sartzeko bide bakarra.

Baiña Malebrantxe'ren gauzarik bereziena baterako aukera "okasionalismoa" da.

Zelan joaten gara pentsalariagandik zabalak dira gauze-tara "res extensa"? Malebrantxe'ren erantzuna korapillo-tsua da: Jainkoak agertu dauskulako bere mundugintza. Guk zerbait sentitzen dogunean, aukera (ocasión) ori artu-ta agertzen dauskuz adimenean kanpoko gauza egiñak. Munduan ez dago egillerik, "causa" dan ezer, benetako egi-ilea beti da Jainkoa eta guk aukera orreik ikusten doguz.

Beste arazo bat kizango da Malebrantxe'rentzat, ori zelan alkartzen dan gure askatasunagaz eta etika edo moralagaz: Guk ariman gauza bi daukaguz, naimena ta askatasuna, esan dogun dana naimenaren bidean dago, baiña gauzak egiteko orduan askatasuna sartzen da. Naimena Jainkoaren eskuan dago, baiña askatasuna geure eskubidea da.

Errez ikusten da Malebrantxe'ek ez dauala nai besterik Deskartes'en filosofia osotzea baiño, filosofi onek dauzan okerrerako bideak zuzendu nai dauz eta orretarako Jainkoaren ekintza sartzen dau mundura eta ideak Jainkoagan ikusten doguz. Eta naimena ta askatasuna bereiztea ez da besterik etika edo moralari bide bat zabaltzea baiño.

Olako korapillorik ez dago Aristoteles'en eta Akinotarraren bidean.

OLAZAR'tar Martin'ek


BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EGUZKIA



Eguzkia eta Izarbelak

Asierako kizi edo atomo-moltzo ikaragarria milla zati egin zanean (bin-ban) zatitxu bat gure eguzkia izan zan eta au be zatitu egin zan izarbelak sotzeko eta oneik satellite diran iretargiaren antzekoak sortzeko zatiak galdu ebezan.

Orain eguzkia aztertuko dogu.

Beste izar batzuren antzekoak da, baiña gutzat auxe bakarrik da il edo bizikoa, beroa, argia eta bizia emoten dauskuzalako. Orregaitik batzuk jainkotzat artu dabe baiña Jainkoa "gorago" dago.

Eta ez da eguzkiaren indar gutzia gugana etorten, guk amar millatik bat artzen dogu bere indarretik, beste gutzia bidean galtzen da. Eta alan bear be,

bero geiagok erre egingo geundukez eta otz geiagok be bizia kendu.

Eguzkia Santio-Bidea deretxon galaksiaren erditik 25000 arturtera dago eta bere ardatzari bira emoten dautso, (rotación), 200 milloi urtean.

Izar guztien artean txikienetakoa da baiña lurra baiño milloi bat bider aundiagoa.

Ludiak lasko 30 erakar-idar (atracción) dauko: 60k. 'k gizon batek eguzkiaren gaiñean tone biko pisua eukiko leuke eta gizon orrek iretargiaren daiñean 10 k. Baiño ez leukez eukiko.

Izar-izti zaleak egunero dabiltz lanabes aundien bidez eguzkia aztertzen eta une dizdiratsuak (arroz.aleak) ikusten dabez eguzki-barruan, kontau aziñeko beste. Ale orrek aundiak dira, izan, Arizona laterriaren bestekoa bakoitxa.

Arroz-ale orrein bitarte baten illun-uneak dagoz, bakoitxa 60 000 km'koak, lur osoaren lako bost.

Eguzkiaren barruan milloika graduko beroa dago eta gaiñean 6 000 gradukoa.

Bero aundi ori idrojenozko kiziak sortzen dabe eta eliozko kizi biurtuta geratzen dira.

Ludian dagozan meatz guztiak dagoz eguzkian, baiña geiena idrojenoa ta elioa da.

Eguzkiaren gaiñeari fotosfera deritxo eta barruari kromosfera. Su jausi aundiak estaltzen dabe kromosfera eta jausi orrek 700 000 km'ra botaten dabe sua. Emendik iretargira lako bidea da ori.

Eguzkiak illun-aldiak, eklipseak, dauz, iretargia bitartean dala gure begietatik kendua izaten danean. Batzutan dana illuntzen da, beste batzutan zati bat edo erdian obo bat. Ez dira batera ikusten lurralde guztietan, gaiñera laburrak dira illargiak bere bidean minuto 50 km. Egiten ditualako.

Kaldeatarrak K.a'ko 2 000n. urtean, gaur ain ezaguna eta gudaz josia dan Bagdad'en asmau eben eklipseak noz gertatuko ziran: 18 urte eta 11 eguneko bitartea.

OLAZAR'tar Martin'ek eratu.

"MENDIKO BASOAK ETA BARRUTIAK EZ DOZUZ ERREKO"
Taoismoaren 67n.agindua.

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erooten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

IZADIA, EUSKERA ETA GIZONA

ITXASOA

Aurraldian daukagu
ikusgarri bikaiña
beren egoetan,
luzez ta zabalez
neurgabe dirudi
edertasunetan.

Margo ederrik ba-da
sortu diran gauzetan,
bat ur aunditan da,
begiak artu-alan
dizdizera ederra
itxasoan ager da.

Apainduriz onduta
dagersku itxaso
beraren ertzetan,
mendi zoragarriak
pozez, begira daukaz
egal guztietan.

Oi, erri maitaleak,
gogoz, begira daukaz
urdintasunera,
itxasoak daneri
agur biotzekoa
bialtzen lurrera.

Ta zu, Bermeo maite,
itxastar seme zara
bizitz ederrean,
zure arnas bizia
urdin ta ederra da
uraren aurrean.

Bermeo zoragarri,
arrain kabia zara
itxas urdiñean,
seme argiak dozuz
lan bikaiñak egiñez
irxas ederrean.

GERIZPEA

Zerua urdin urdin,
ixillean itz dagi
edertasunagaz,
jakituria dauka
goi alde guztiak
beren edertasunagaz.

Bei zuri ta gorriak,
atsegiñez, dabiltzaz
larra ugarian,
zelai dana ederrez
jantzi dau eguzkiak
udalen gozian.

Aritz zoragarria,
dizdizera ederrez,
zutik dago goizez,
gerizpe maite-miña
atsegiña opaka
zoriontasunez.

MENDI GAIÑA

Makillak lagundurik
ba-doa gizon piña
mendi goi aldera,
oi, zein eder dan MAXA
euskaldun lur artean
goitik eta bera.

Gizona arrituta
mendiaren ederrez
zoramen bizian,
ederren zein ete dan
maiteki orniturik
gain danen artian.

Euskaldun gain ederrak
alkar begira dagoz
maitasun onian,
gora mendi gain dana
Egillea ospatuz
arnasa garbian.

EUSKERA

Izkuntz zoragarria
buruz-biotzez zara
ezilkor bizian,
ederra zara itzez
mamin guriz beterik
izate guztian.

Seme-alaba onak
bikainduten zaitue
zure sormenean,
erria ta izkuntza
biak batera datoz
edertasunean.

Baserri ta lantegi
gogoz batera dabiltz
jakintzaz beterik,
izkuntza bikaiñena
Laukariz lur gaiñean
urrezko soturik.

NERE MAITALEA

Oi, gizon zentzunduna
jakintzaz apaindua
edertasunean,
tokirik ederrenak
gogoz, maite dituzu
nortasun duiñean.

Buru eta biotzez
ondo, ornidu zagoz
giza seme legez,
zuzentasuna dozu
zure asmo bikaiña
bizitza ederrez.

Buru goiko argia
biotz laguntasunaz
da zure gidari,
zure almen jatorrak,
egiz, biur zaitue
gizon maitegarri.

PAULIN

NOMADA EDO IBILTARIAK

Basomortuan ara ta ona dabiltzan eta beduinoakk derixen ibiltari edo nomadak artzaiñak dira.

Bedarra urria dalako, ez dauke egon-leku ziurrik, iñoz ez astebete baiño gaiago leku baten. Legor-aldian egunean txosna bat baiño geiago bear izaten dabez.

Oial-txabolategi edo kamentu bakoitzean eun notin egon leitez: Emakumeak sukaldean eta garbiketant, auzten esnea erazten, jantziak eta oialak egiteko arkumeen eta ganbeluen ulea iruiten jantziak, egiten dabe lan, eta gizonetako artegiak zaintzen eta buruzagi diranak bedar-barrutien billa igaroten dabez egunak.

Txosnak ganbelu-uleagaz egiñak dira, makilleagaz lurrean lotzen dabez, albo baten atea dala. Been lur zapaldua eta oiñazpikoak.

Ez dauke jateko ez aitzorik, ez koillararik, ez ortzarik, kuzkuz izeneko ontzi batetik jaten dabe atzamarrakaz artuta. Oasis edo on-uneetan arraiña dauke.

Jazteko alkondarea ta kapa bat. Buruan turbanea. Oiñetakoak.

Ez dabe gura kulturarik. Zaldia ta ganbelua dabez naikoa bizi izateko. Zaldiz eta alkoiakaz aizatzen dabe.

GIZON URDIÑAK

Eremu edo basamortuetako gizonik arrigarrienak Taurrek'k tarrak dira. Aljer'en egoaldean bizi dira, lur legorrean. Azal zuriko musulmanak doguz. Gizonetako aupegia estaltzen dabe, ez emakumeak. Estalki ori ez dabe kentzen ez gaeuz eta ez egunez.

Orreitariko moruak bildurgarriak dira.

Buru-zapi edo turbanteak liñuz egiñak dira eta margo ubeleko bedarrakaz apaintzen dabez eta aurpegia be urdinu egiten dabe bedar orreik.

Dromedarioetan ibiltzen dira.

Itxasoan naiz legorrean lapurretan egiten dira zaleak.

Euren irabazbidea auztak, ganbeluak eta zebraak dira. Eurak aberazain dirala.

Arro agertzen dira eta ez dabe onartzen erbestekorik iñor euren artean.

Mahoma'ren erlejiñoa errez alboratzen dabe eta orregaitik, arabiarren artean "Jainkoak itziak" esaten dautsee. Iñoz kristiñau-itxura b artzen dabe, kurutzea apaingarri dabela.

EREMUKO SALEROSKEAK EDO TRATULARIAK

Oneik endaz Mzambitarrak dira eta iñork ez daki nondik ara joanak orain milla urte.

Lurrarte Itxasoaren ondoan bizi dira eta aberatsak, aurreratuak doguz.

Euren erlejiñoa ez dala egoakia eta aurrean erabili ebezan musulmanak.

Orregaitik, basamortura iges egin bear izan eben.

Europa ta Asia guztira zabaldu dira, baiña ondo dakie erri bat dirana, judatarren antzera.

Basamiortuan zuloa egin eta ibaia aurkitu eben eta antxe ezarri eben euren urubuuu: Ghardaia.

Gaur beste bost erri be ba-daukez eta ur gaiago aurkitu dabe. Erriak buziñezkoak dira eta orrelan otza kentzen dabe, sarritan amar urtean be euririk egin ez arren.

Orain iñork ez darabitz aurrean eta noizean bein etorten dira beste erri batzutara be.

Tratuan naikoa diru irabazten dabenean, euren errietara biurtzen dira, euren egunak an amaitzeko.

ERROMATARRAKAZ

Erromatarrak ezagutu eben Afrika, batez be Tunizia.

Orain 3000 urte feniziar ausartak Kartago'ra eldu eta erromatarren etsai izan ziran. Or sortu ziran iru guda punitarrak Erroma ta Kartago'ren artean.

Baal jainkoari gizonak ekintzen eutsoezan opari.

Erromatarrak Kartago menperatu eben eta Anibal kartagotarrak elefantez ornitutako gudarosteagaz, euskaldunak be lagun ebazala, Alpe mendiak igaro eta Errom'ra sartu ondoren an dardarea sortu eban.

Erroma dristiñauak Afrika'ra eroan eban gizartea eta an daukaguz erromatarren denporan izan ziran 70 erriren astarnak. 700 eleizbarruti egozan bertan. Gogoratu San Zipriano ta San Augustin gotzain ospetsuak. Baiña siniskera okerrak makaldu eben ango eleizea eta errez azpiratu eben musulmanak.

Ura errietara eroan eta Tunizia izan zan erromatarren gari-lekua.

Erroma'ren nagusitasuna amaitu zanean, Bizantzio urreratu zan. Gero, zori txarrez, bandalitarrek zapuztu eben dana, baiña Belisario gudalburuak uxatu ebezan baldalitarrek eta barriro gari-lur biurtu zan Afrika-alde au.


VI gizaldian arabiarrek ondatu eben ango jaintza ta eleizea.

Olazar'tar Martin'ek

ZUGATZ BAR SARTU
DAUANARENA EZ DA
ALPEREKO BIZITZEA

DANTE

EUSKALDUN BARRIA



TXARRIAK, ARDIAREN BILLA JOAN GURA DAU